



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



IDIAZABALGO UDALA ETA EUSKO IKASKUNTZAREN ARTEKO BAZKIDETZE AKORDIOA BERRITZEA

2004. urtetik Eusko Ikaskuntzaren bazkide den Idiazabalgo Udalak, Eusko Ikaskuntzaren bazkidetze politika berria onartzen du eta Eusko Ikaskuntzaren bazkide babesle izaten jarraituko du urtean 200€ ko kuota ordainduko duelarik. Kuota honi esker Idiazabalgo Udalak Eusko Ikaskuntzako bazkide izateak suposatzen dituen abantailak izango ditu:

- Herritarrei eta administrazio lokalari hausnarketa, ikerketa eta bestelako proiektuetan aktiboki parte hartzeko aukera, herri mailako, eskualdeko eta Euskal Herri mailako ekimenetan.
- Hainbat herrik amankomunean dituzten arazoen inguruan, hausnarketa kolektiboak burutzea.
- Lan-ildo batzuen inguruan, ezagutza partekatzea.
- Gertutasuna: Tokian tokiko espezifikitatea eta problematikak lantzeko aukera.
- Eusko Ikaskuntzaren sare zabalaren partaide izatea eta babesle izaera aitortu eta ezagutaraztea. Zabalkunde egitasmoetan ikusgarritasuna.
- Eusko Ikaskuntzak, bere eskarmentu eta ezagutzari esker, udalari proiektu eta jarduera egokiak, kalitate eta baldintza onetan eskaintzea.

Dokumentu honek 2004eko maiatzaren 7an Idiazabalgo Udalak eta Eusko Ikaskuntzak sinatu zuten hitzarmena ordezkatzeko du, aipatutako hitzarmena bertan behera geratzen delarik.

Alde biek adostasuna frogatuz, dokumentu hau sinatzen dute 2018ko abuztuaren 27an

Ioritz Imaz Baztarrika
Idiazabalgo Alkatea



Arantza Cuesta Ezeiza
Eusko Ikaskuntzako Zuzendaria